





Izena:

1.

<p>Ezabatutako erpina</p>	<p>Karratu baten lau erpinak zeuden markatuta orri koadrikulatu batean; baina erpinetako bat ezabatu egin da. Koordinatuak erabiliz, non markatu beharko dugu erpin hori?</p>
	



2.

<p>Geltokia kokatzen</p>	<p>Bi herrik tren geltoki bera erabiltzen dute. Zein da geltokiaren posizioa bi herriekiko? (Errealitateko 500 m adierazten du grafikoko laukitxo bakoitzaren aldeak)</p>
	

3.

Non dago ermita? ▾

Mendira joan da lagun talde bat. Krokis txiki bat egin du taldeko kide batek; koordinatu ardatzak erabili ditu. Bertan, ermita bat ageri da. Zeintzuk dira ermitaren koordinatuak?





Point	X Coordinate	Y Coordinate
herria	5	5
(+)ermita	7	4

4.

Sumendiak ▾

Aztertu grafikoan adierazten diren datuak. Zer sumendik ditu erupzio gehien? Zein da sumendirik altuena?




Sumendia	Altuera (guzurra)	Erupzioak (guzurra)
Suharra	8	7
Basaltikoa	7	6
Elurtua	6	5
Zalpartatsua	2	4
Koleratsua	4	3
Konikoa	2	2

5.

Ekonomia


Azkenengo 12 hiletako balantzea adierazten duen grafikoa aurkeztu du enpresa batek. Zer hiletan izan du irabazi gehien aurreneko aldiz? Eta zer hiletan izan du gutxien azkeneko aldiz? Zer diru-sarrera izan du iraila-n?



6.

Paseoa



Paseoan irten da Marta etxetik. Zenbat denbora eman du paseoan? Zer distantziatara dago etxetik urrunen dagoen puntua?



7.

Fruta saltzen

Aztertu grafiko honetako datuak. Zenbatean saldu da fruta kiloa?





fruta (kg)	prezioa(€)
0	0
4	4,4

8.

Tren bidaia

8:00-tan irten da Malagatik Bartzelonara ibilbide luzeko tren. Beheko grafikoan, trenak egindako ibilbidea adierazten da, denboraren eta trenaren batezbesteko abiaduraren funtzioan. Zer ordutan heldu da Bartzelonara? Zein izan da trenaren batezbesteko abiadura?**(ibilbidea 1.200 km-koa da)**





denbora (h)	distantzia (km)
0	0
4,8	1200

9.

Depositua betetzen

30 litro/min ur botatzen duen bonba batekin betetzen da ur depositu bat. Beheko grafikoko zein zuzenek adierazten du zenbat ur dagoen deposituan denboraren funtzioan?

10.

Taulatik grafikora


Balio taula bat eta ardatz koordinatu batzuk ikus ditzakezu eskuineko irudian. Taulari dagokion grafikoa egingo dugu ardatz koordinatuetan.

Taulako balio bikoteak grafikora eramango ditugu: bikoteak puntuen koordinatuak izango dira.



Ohartu: Taulako X-en lehenengo balioak esango digu zein den puntuaren abzisa, eta hortik abiatuta gora edo behera joango gara Y-k adierazten duen beste horrenbeste posizio. Prozesua errepikatuko dugu taulako balio bikote guztiekin.

BALIO TAULA	
X	Y
0	1
1	1
2	1
3	9
4	3
5	0
6	1
7	0
8	0
9	8
10	9
11	4
12	8




11.

Grafikotik taulara

Grafiko kartesiar baten puntuak adierazten dira eskuineko irudian. Grafikoari dagokion taula lortu nahi dugu oraingo honetan.

Prozesua: Lehenengo puntua hartuko dugu (**ezkerrekoena**), eta bertatik **Y ardatz**arekiko paralelo bat marraztuko dugu **X ardatz**eraino, eta **X ardatz**arekiko beste paralelo bat **Y ardatz**eraino. Paralelo horien eta ardatzen arteko ebaki puntuak izango dira puntuaren **X** eta **Y balioak** (koordinatuak). Balio horiek balio taulan idatziko ditugu. Gero, prozesua errepikatuko dugu beste puntu guztiakin. Azken puntuak (**eskuinekoena**) idazten dugunean izango dugu taula osatuta.



12.


Beste adibide batzuk

Telefonia finkoa eskaintzen duen konpainia batek honela kobratzen digu: dei bakoitzeko, 8 zentimo deia jasotzen duenak telefonoa hartze hutsagatik, eta 3 zentimo deiak irauten duen minutu bakoitzeko. Dei baten kostua zehazten duen formula hau da: $y=2x+8$, non **y** deiaren **kostua (euro zentimotan)** den, eta **x**, deiaren **iraupena (minututan)**.

Formularen adierazpen grafikoa ikus dezakezu alboko irudian.


Ohartu: Koordinatu jatorritik igarotzen **EZ** den zuzen batean daude lerrokatuta puntuak. Funtzio **afina** da.

Sakatu hemen ariketa batzuk egiteko




13.

Bete irudiko laukitxoak. Hitz bakarra jarri behar duzu laukitxo bakoitzean.



14.

Zuzen bat marraztuko dugu: $y = -2,5 \cdot x$ formula grafikoki adieraziko duena, hain zuzen ere. Koordenatu jatorritik eta A puntu batetik igaroko da zuzen hori. Non kokatu behar duzu A puntua?



15.

Idatzi irudiko puntu bakoitzaren koordinatuak. Sakatu **intro**, eta, ondoren, sakatu **datuak sartu**. Sakatu **konprobatu** zure erantzunak ondo dauden jakiteko. Sakatu **hasi** beste ariketa bat egiteko.

	x	y
A		
B		
C		
D		
E		
F		
G		
H		

Sartu puntu bakoitzaren x eta y-ren balioak, eta sakatu intro.


16.

Burtsan kotizatzen du EDAD S.A. enpresak urte batzuetatik hona. Beheko grafikoan, adierazten da zenbatean kotizatu zuten akzioek (€-tan) 2008. urtean zehar (hil bakoitzaren amaieran).

Akzio batek izan zuen kotizaziorik handiena € da, eta hil honetan lortu zen lehenengoz:

Akzio batek izan zuen kotizaziorik txikiena € da, eta hil honetan lortu zen lehenengoz:

Abenduan, honenbeste balio zuen akzio bakoitzak: €



Sakatu [intro] erantzunak sartu eta gero